

opusdei.org

# Zumarragako Salbatore Parrokiko eskultorearekin hizketan

Liturgi huts-hutsak Jainkoagana  
urreratzen gaitu, irudi  
pinpirinek ez bezala;  
ezinbestekoa da artistaren  
jatortasuna

2004 Uzt 15

Jose Luis Cobrerosek Arte Ederrak  
ikasi zituen, ezkontuta dago eta  
bederatzi seme-alaben aita da, 70  
urte ditu eta 30 urte baino gehiago

bete ditu Opus Deiko kide bezala.  
Cobrerros arte irakasle izan da, Erain  
ikastetxean eta zenbait arte  
akademiatan.

Duela hilabete batzuk Zumarragako  
Salvatore Parrokiko erretaula eta  
Gurutz Bidea bukatu zituen. Hogeita  
hamar metro karratu inguruko  
erretaula da. Bi metroko Kristo bat  
da bere irudi nagusia; aldamenean,  
Jaunaren bizitzako zenbait oroigarri:  
tentaldiak, mendiko hitzaldia,  
Lazaroren piztuera, mirarizko  
arrantzua, eta abar.

“Jose Ignacio Munilla parrokoa etorri  
zitzaidanean, eliza berriaren  
apainduraz galdezka,  
Torreciudadekoaren antzeko  
erretaula egitea pentsatu nuen.  
Parrokiaren izenari Kristo berpiztuta  
dagokio, gurutziltzatua baino.  
Jaunaren tentaldien irudia iradoki  
zidan berak, gaur egun deabrua oso  
gutxi aipatzen delako. Salestarren

komentuan ekin genion lanari, baina tailerraren ondoko txabola batera aldatu behar izan genuen, buztina garraiatzerik ez geneukalako moldeatze-lana egiteko lekura.

Neguan gorriak ikusi genituen, hotza baitzen eta buztina hezea zegoelako.”

## **Erljio motako zure lanetan, zein da gehien maite duzuna?**

Ama Birjinaren eskulturak, panteoietarako irudiak, eta abar dauzkat landuak. Betiko leloa izan arren, seme-alaba guztiak berdin maite izaten dira: ezin esan, zein iruditzen zaidan onena.

## **Eskultura eta arte erlijiosoa ulertzeko duzun ikuspegian, eraginik izan al du San Josemariaren irakatsiak ezagutzeak?**

Bai, batez ere lan erlijiosoa denean. Jaungoikoari eskaintzen diot eguneko zeregina eta, bide batez,

bere laguntza eskatu, lortutako emaitza ederra izan dadin. Bidea liburuan idatzitakoa gogoratzen zait horrelakoetan: liturgi huts-hutsak Jainkoagana urreratzen gaituela, alegia, irudi pinpirinek ez bezala. Artista baten eginkizunak bihotzetik atera behar du, ulertuko bada. Euforiazko uneak eta etsipenezkoak izaten dira, baina ezinbestekoa da artistaren jatortasuna; hortxe dago koska.

**Zenbait euskal eskultorek langai jakin batzuk aukeratu dituzte – burdina, egurra, granittoa – eta euskal senarekin lotu.**

Arte abstraktua lantzen dute gehienbat. Nik egiten dudana eskultura figuratiboa da; buztinaz sortu, gozatu eta sufritu egiten da. Ondorengo tratamendua azalekoa da. Zumarraga parrokoiko piezak, aurrena buztinaz eginak dira, eta, gero, igeltsua poliuretanoz tratatu

ziren, beirazko gogortasuna emateko  
asmoz, eta azkenik, patinaz.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/zumarragako-salbatore-  
parrokiko-eskultorearekin-hizketan/](https://opusdei.org/eu-es/article/zumarragako-salbatore-parrokiko-eskultorearekin-hizketan/)  
(2025 Mai 27)